

ARRORIOA

Gure ikasle-denporan ikasi gendun, gure mundu onen aldi baten zugatz aundi-aundiak beteten ebela lurra eta gero zugaz-tzar erreik lur-ikarak zirala-ta lur-peratuta geratu zirala eta errein ondorena dira gaur lur-barruan aurkitzen diran arrorio edo petrolio boltza aundi ikaragarriak.

Lurpean egoan arrorio ori aurkitu dabe gaurko gizonak indar edo emerji-iturri biurtu dabe eta berebilen motorrak asmatu diranean, a zelako aberats-bidea sortu dan arrorioa dauken laterrientzat!

ESKATZEN DAUTZUDAN BURDIÑEA
BIZKAI'KOA DA, BERBAZ LABURRA,
EGITEZ LUZEA

TIRSO DE MOLINA

Irabazbide ori arabiarrek diran laterri askotan agertu da, baiña gizon batzuk aberastu eta erria oso txiro

OLAZAR'tar Martin'ek

KILI-KILI ALDIZKARIA

ZER DAN

Euskeraz idazten ikasteko aukera bat da KILI-KILI, batez be umeentzat.

Ainbat urte dira ikasbide au gure adiskide ta Ian-kide dan Jose Antonio Retolaza 'k irasi ebala. Eta gure adiskide onek lan aundia eta asmamen aundiagaz egin dau irakasbide onetan.

Al izan dogun neurrian lagundu dautsagu, ingurraztiak zabaltzen eta batzen, sariak banatzen eta ibillaldiak egiten.

Jakiña da KILI-KILI euskalzalea ta abertzalea dala eta ori da batzuntzat parkatu-eziñeko pekatu ezkutua.

GAURKO GIROA

Gaur abertzaletasuna eta gogorkeria zaku baten sartzen dabez gure aurkalariak eta orregaitik, zaku orretara sartuta, debekatu dabela diño aldizkari au argitaratzea: Bizkai 'ko Ikastolen Alkartek aldizkari

bizi izateko erabilli dabe. Dana dala, arrorioak aurrerapen aundia ekarri dau mundura.

Ez dagigun aiztu atsegin-baratz edo paraisuaren bazter baten sugea egoala eta antzera gure mundu aurreratu onen barruan be arriskua dagoala.

Ona emen zelan eldu garan prestige itxas-ontziaren arazo negar-garrira!

Itxas-gaiñean eta barruan zabaldu da arrorio lodia eta zelako ondamendia, batez be galiziarrentzat!

Gaiñera arrorio ori zabaltzen doala diño eta Euskalerrira be etorri leitekela. Gure Jaurlaritzak gauzak gertatzen diardu, badaespadan.

Ba-dagoz beste indarbide batzuk be, esaterako itxasoarena eta aizearena. Ikusten doguz mendi-gaiñeetan orretarako tramankuluak.

Bear-izan asko daukaguz gaur gizonak eta alkarrai lagunduta aurrera egin bear dogu, gaur galiziarrai lagunduta. Elduko al da alkartasunean munduko arazo larriak, batez be gosea, bideratzeko.

au kudeatzea itzi egin dau, DEIA'k diñoanez, azkenengo zenbakian euren elburutik kanpo dagoan gutun bat eta bertso bat agertu diralako (2002-12-11). Agiri orreitan Garzon'en eta Aznar'en eta ertzaiñen aurka idazten ei da eta ori ez ei da sartzen euren elburua dan, euskerea ta euskal kulturea indartzearen arloan.

Aldizkaria ez da geiago urtengo, baiña sariketake eta jarraituko dabe.

AUZOKOEN BIZARRA

Erdeldunen esaera zar batek diño "auzokoen bizarra kentzen diarduela ikusten dozunean, ipiñi egizu zeurea beratzen"

Ikusi dogu auzokoen bizarra zelan kentzen daben. Geurea beratu bear ete dogu?

Izan be abertzaletasuna ta gogorkeria alkartzeak errenta aundia damotsoe gure aurkalariak.

OLAZAR'tar Martin'ek